



Korrikalari gazteak, Klub Deportivo Hernaniko arduradunak, antolatzaileak eta sari emaileak atzo Landaren, proba ondorenean.

## Joseba Lizeaga Gipuzkoako Txapeldun eta Eider Aldabe bigarren atzo Landaren, 41garren Adarraga memorialean

KORRIKALARI gazteek Gipuzkoako Kross txapelketa zuten atzo Landaren eta hernaniarrek paper bikaina egin zuten berriz ere. Mutiletan Joseba Lizeaga lehenengo izan zen infantil mailan, 3.110 metroak 11:23 denboran eginda. Mikel Von Wichmann 14garren izan zen, Txomin Lizeaga 18garren eta Manex

Pagola 20garren. Nesketaan Eider Aldabe bigarren izan zen infantiletan, 2.350 metroak 9:24 denboran eginda. Txapeldun Eider Algaba goierriarra izan zen 9:09ko denborarekin. Alebinetan Tamara Lozano eta Mario Callejak irabazi zuten eta lehen hernaniarra Ane Villaberde izan zen, 7garren tokian. Gipuzkoa

guztiko 271 korrikalari gaztek hartzutzen atzo parte, Landaren Gipuzkoako Txapelketako probatan.

**Pepe Adarragaren omenez**  
Adarraga memorialaren barruan jokatzen da Gipuzkoako Txapelketa, Pepe Adarraga zenaren omenez. Atzo semea, Antton Adarraga, izan

zen sariak ematen eta berak esan zigun Pepe Adarraga eta bere kideak nola korrika ibiltzen ziren apretei Lasarte Michelindik ekarritako goma pusketak jarrita. Pepe Adarraga izan zen Klub Deportiboa fundatu zuenatako eta lehen lehendakaria. Aurtengoa 41garren memoria izan da. □

## Udalak Hernani, Lasarte eta Usurbil batuko dituen autobus zerbitzua sortzeko eskatu dio Diputazioari

■ Diputazioak erantzun du mobilidade estudio bat egingo duela Buruntzaldean, beharrak ikusi eta erantzun bat emateko ■ Andoni Amonarrai Zerbitzuetako Zinegotzia gustora azaldu da Diputazioaren erantzunarekin.

HERNANIKO Udalak autobus zerbitzu berria sortzeko eskatu dio Diputazioari, Hernani, Lasarte eta Usurbil elkartzeke. Joan den azaroan egin zion eskaria Andoni Amonarrai Zerbitzuetako Zinegotziak Diputazioko Ga-raia Zuzendarriari. Kronikara

bidalitako prentsa oharrean dioenez Udaleko Zinegotziak Hernaniko autobus zerbitzuak dituen gabeziengatik berri eman zion, eta Hernani, Lasarte, Usurbil eta Urbil zentro komertziala batuko dituen autobus linea bat sortzea egokia litzatekeela esan zion.

**Mobilidade studioa**  
Diputazioaren erantzuna izan da Buruntzaldean mobilidade estudio bat egingo dutela, inguruak dituen beharrak ikusteko. Amonarrai Zinegotzia gustora haritu du erantzuna eta esan du "herriko kanpoko garraio zerbitzua Diputazioaren konpeten-

zia da eta berari dagokio zerbitzu hau jartzea". Honez gain dio mobilidade azterketak herriak elkartuko dituen autobus zerbitzua ekartzea espero duela, "herrien arteko komunikazio arazoak konpondu eta kotxe eta garraio pribatua erabili beharrik ez izateko". □

**DORRONSORO**  
OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsoro Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

**mikel armendariz**

projektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422  
HERNANI

**"TXIRRITA" - EREÑOTZU**

Matrikula: otsailaren 16tik otsailaren 27ra

Telefona: 943 554256

Etor zaitez eskola ikustera!

## Askatasunak Pedro Mari Kano 'Pitu'ren kontrako epaiketa salatu du

ASKATASUNA erakundeak Au-zitegi Nazionalean egunotan egitekoak dituzten epaiketak salatu ditu eta horien artean Pedro Mari Kano Pituren kontrako. Askatasunak dio epaiketa hauek "estatu espanyolaren beste errepresio tresna bat" direla eta "Euskal Herriaren ukazioa eta anikilazioa" bilatzen dutela. Egoeraren aurrean erantzun zabala eman behar dela dio Askatasunak. □

## Aralarko Patxi Zabaleta eta Mikel Basaberetan hitzaldia bihar

ARALAR ezker independiente Ezker independentista izenburu duen hitzaldia emango dute bihar Patxi Zabaleta Aralarko koordinatzaleak eta Mikel Basabe Aralarko bozeramaileak, arratsaldeko 19:30etan, Biteri kultur etxearen. Jorratuko dituzten gaietako batzuk dira: Aralarren ibilidea, gaur egungo egoera politikoaren azterketa eta estrategia armatuaren zein autonomismoaren porrota, nola ikusten dituen Aralarrek martxoko hauteskundeak, zein pausu eman diren aliantza politikoak definitzeko orduan, Nafarroa Bai ekimena eta abar. Kronikara bidalitako prentsa oharrean dioenez, informatu eta iritziaz trukatzeaz gain Aralarrek beren aldeko laguntzaile sare bat osatu nahi du biharko hitzaldian, prest dagoen jendearekin. □

## Hitzaldia bihar Urumea ikastolan

'GAZTEAK gaur egun' izenburuarekin hitzaldia dago bihar, astearte, Urumea ikastolan. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan da Elkano kaleko edifizioko liburutegian. □



**Iñude eta Artzaia Hernanin barrena.** Urumea ikastolak antolatuta iñude eta artzaien festa egin zuten atzo Hernaniko kaleetan, 11-16 urte arteko 150 bat gaztek. Txarangak lagunduta salto eta dantza ibili ziren herrian barrena, eta kale ertzetan jende dezente elkartu zen seme alabak ikusi eta argazkiak ateratzera. □

## JASOTA BEZALA

### Mila muxu eta zaplazteko pare bat

Aupa Hernani! Soto del Realeko espetxeen isolaturik gauden bi herrikide gara eta mila gauza dauzkagu esateko. Lehenik eta behin eskerrak eman gure etxeen miaketa burutzen ari ziren bitartean kalean oihuka jardun zenuten guztioi. Ez dakizue ongi zenbat animatu gintuzten zuen garraia eta zaratek. Txakurra ere zeharo harrituta zeuden han bildu zen jendetzarekin. Faltan genuen indarra eman zenigutenea eta hori ez dugu sekula ahaztuko. Aislamentuan gauden arren abokatuak esan zigun jendetza itzela mobilizatu dela gure atxilotekaren inguruko ekitaldietan. Badakigu gure senideek ere laguntza eta babes handia jaso dutela zuetako askoren aldetik. Mila muxu denentzako! Gabon egunetik gaur arte ez dugu apena gutaz esan denaren berrikire, baina esan digutenaren arabera gezurrez lepo bete dira albistegi, programa eta egunkarietako orri ustelak. Propagandarako erabili dute gure atxilotek eta igarri ahal izan dugunez putre gehiegiri bete zaio

ahoa gure inguruko tertuliatan. Izanen da denbora gauzak argitzeko baina esan nahi duguna da gezur sorta ederra egin dela publiko eta dena ez dela gertatu esan duten bezela.

Zoritzarrez gure herriak bizi duen gatazkaren islada gara, enfretement baten alde bateko biktimak, eta lagunak eta familia ere zorizko biktimak. Egoera honek, ordea, amaiera du; Euskal Herriaren subiranotasuna, autodeterminazio eskubidearen onartzea eta ejekutatzea. Oztopoak ere gehiegi dira, ordea. Espaniar eta Frantziar gobernuen itxikeriaz gain beren burua abertzaletzat duten baina prozesu hau bultzatzen ez dutenen koldarkeria. Hartu beharreko erabakietan kokiltzen diren artean luze joko du gatazkak, interes partidista eta pertsonalak bake prozesu posible baten aurrek jarriak dituztelako. Herrian atrako bidez lorturiko bozkaz gobernatzen dute batzuek, izen abizenekin, eta EA, PNV, IU, Aralar eta Batzarre bezelako siglen atzean izkutatzen dute koldarkeria guzia, tartean tartean arroten diren arren.

Mila bider esan dugu hor geundenean eta ozen diogu hemendik ere: “¡Jugamos todos o pinchamos el balón!”. Bidea bakarra da, kompromezua.

Amaitzeko eskerrak eman nahi ditzkiegu berriz ere gure alde mobilizatu zaren denoi eta baita gure senitartekoei eman diezuen laguntzagatik ere. Bainak denak ez dira loreak izango. Argi eduki behar dugu denek manifestazioetan biltzeak soilik ez gaituela oso urrutira eramango eta denok implikatu behar dugula, bakoitzak ahal duen esparruan eta ahal duen bezela. Guk ere, presoen kolektiboko kide bezala agente aktibo izan nahi dugu Euskal Herriaren egunerokotasunean eta, nola ez, gure bihotzea Hernanin.

Denok eman behar dugu zerbaiz gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten. Maite zaituztegu zinez!

Gora Euskal Herria aske, Euskaldun eta Sozialista!

### Gorka Loran eta Gari Arruarte

(Soto del Real -Modulo 15- Aislamentua)  
2004ko urtarrilaren 1a

## KIROLA

## ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	N o n
Gorengomaia.	Tobosa-Hernani	1-2
Emakumakum ezkoen liga.	Añorga-Hernani	0-2
Gazteen euskal liga	Unión Txiki-Hernani	0-1
Gazteak 1m aila	Hernani-Kostkas	1-0
Kadeteak Oho rezko a	Ebar-Hernani	1-2
Kadeteak 1m aila	Trintxerpe-Hernani	3-2
Haurren Oho rezko liga	Hernani-Tobosa	0-1
Haurren 1m aila	Zarautz-Hernani	10-0

  

ERRUGBA	Hernani	Real Sociedad	N o n
1M aila Nazionala	Hernani-Geroa	19-10	
Alebina	Zarautz-Hernani	0-15	
Alebina	Ondiz-Hernani	0-15	

  

BOLEIBOLA	Hernani	Real Sociedad	N o n
Euskal Liga M utilak	Trueba/EHU Hernani		2-3

  

WATERPOLOA	Hernani	Real Sociedad	N o n
Euskal Liga Neskaak	Aiskartza-Hernani		8-8

PELOTA	N o n
Erremontea - Galarraga Jaialdia	
1) M atxu IV Aginenzabala/Funabide-Bn	35-32
2) Ezkuna-A uzmen endi/A luna Hizaso	40-32
3) Iñigo-J Etxebenita/B torri-Urk	40-32
4) Juanista Izpuna II Uteiga-Gaztel	22-30
Txapelketak	
Buruntza txap	EsnaJai/Etxaniz II Galazia IV
Jub. Eskuz	Endo zib-Zuntzu/San Esteban
Jub. Eskuz	Lagunak/Ezeiza II A negi
Kadet.Eskuz	Aizpitarte/Kuzene
Paleta	Gema-Lujanbio/A unearia Letza
N agu. Eskuz	Ruiz de Galaneta/San Sebastian
Kadet. Eskuz	Fernandez de Goicoetxea/M uñoz
Jub. Eskuz	Grajal-Zuntzu
N agu. Eskuz	Giria/Gaskon-Alarez
XAKEA	
Gipuzkoa 1	Fomento Bezaun C HernaniA
	2-2

## Orreaga eta Behatokiaren aldeko mus txapelketako partidak Hernanin

ORREAGA Nafar elkarteen bilguneak antolatuta 5garren mus txapelketa jokatuko da Euskal Herrian eta Hernanin ere badira partidak. Martxoaren 13an jokatuko dira eliminatoriak, Xalaparta elkartean, 15:30- eta hasita (zozketa bertan egingo da). Irabazleek eskualdeko beste herrietako irabazleen kontra jokatuko dute eta eskualdeko txapelduna Barañainen, maiztatzen 30ean jokatuko den finalera pasako da. Izen ematea martxoaren 1a baino lehen egin behar da Zikuñaga, Riojano, Aralar, Deportivo, Onyi, Aitan Etxe, Etxe Berri eta Elkan tabernetan. Bikoteko 20 euro.

Sariak bidaietan  
Bikote irabazleak Kubara 2

bidaia irabaziko ditu; bigarrenak, Kanarietara 2 bidaia, eta landaetxeetan asteburuak pasaatzeko sariak ere izango dira.

**Dirua Orreaga eta Behatokiari** Bildutako dirua “euskal kulturaren inguruko erakundeei” ematen zaie Orreaga elkartek jakinarazi duenez eta Nafarroa Oinez, Gara eta abarri eman izan diote orain arte. Aurten Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta Orreaga Elkartea berarentzat izango da bildutako dirua. Orreagak jakin arazi du diru laguntza gehienak kendu dizkiotela eta “ito zorian” dagoela aurten. Horregatik bere burua indartzeko ere erabiliko du bosgarren mus txapelketa honetan ateratak dirua. □

## HITZ BITAN

### XAKEA

**Hernanik 2-2 berdindu Beraunen kontra.** Hernanik berdinketa ekarri zuen larunbatean Beraundik. Fernando eta Ixidro Esnaola tablak egin zituzten, Breogan Estevezek irabazi egin zuen eta Gerardo Plazak galdu. Jardunaldi bakarra gelditzen da lehen fasea bukatzen eta Hernaniko lehen taldea bigarren dijoa eta mailaz igotzeko aukera haundiak.

### FUTBOLA

**Hernanik 0-2 irabazi Añorgari.** Emakumezkoen liga-taldeak jokatu zuen atzo Añorgan eta hiru puntuak etxera ekartzea lortu zuen Hernanik. Teorian partidu zaila zuten zuri berdeek, Añorga sailkapenean 3garren baitioa, baina, Hernanik neurria hartu zion eta nahiko erraz gainditu zuen etxeko taldea.

### WATERPOLOA

**Hernanik 8-8 berdindu zuen atzo Leioan.** Hernanik irabazteko moduko partidua berdindu egin zuen atzo Leioan, eta partidua galtzeko zorian ere izan ziren. Hernaniarrak ondo hasi ziren baina partidua aurrera egin ahala bera egin zuten eta bukaeran 3 gol azpitik ere joan ziren. Azkenean partidua buelta eman eta partidua berdintza lortu zuten Hernaniko neskek.

### PELOTA

**Esnal-Jaio Buruntza Txapelketatik kanpora.** Iñaki Esnal eta Jaiok Etxaniz II eta Galartza IVaren kontra jokatu zuten joan den ostralean Buruntza Txapelketako final laurdentako partidua eta hernaniarrak eta Jaiok galdu egin zuten 22-12. Honenbestez Buruntza Txapelketatik kanpora gelditu dira.

**Aizpitarte finaletik pausu batera.** Euskal Herriko txapelketako finalaurrekoetan da Beñat Azpitarte eta asteburuan lehen partidua irabazi dio Eder Ibarra Sopelako pelotariari, 22-17. Datorren asteburuan izango da Bueltako partidua. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

Taxiak:	943 550093
Udalzaingoa:	943 333288
DYA:	943 464622
Autobusak:	943 556662
Anbulatorioa:	943 006666
Jokalari anonimoak:	943 331103

### FARMAZIAK

Egunez:	Etxebeste
Elkano 2	943 552087
Gauze:	Rodriguez
Lasarte. Nagusia 42	943 361774

## IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Power Mac 7200 ordenagailua salgai. Osagaiak: 15” monitorea, EPSON impresora, ZIPa. Interesatuek deitu: 680 26 86 69

## HERNANI HIZKUNTZAK

Gure Ingelesetxea

**ZORIONAK:** Amaia, Ion eta Hibai,  
**PROFICIENCY, ADVANCED eta FIRST** azterketak aprobatzeagatik.  
**HERNANI HIZKUNTZAK:** KALE NAGUSIA 41, 1  
Deitu Alan / Joe: ☎ 943 33 11 08